



**AGINDUA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO
SAILBURUARENA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA
DEMOGRAFIKOKO SAILAREN EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALARI
BURUZKO URRIAREN 29KO 320/24 DEKRETUA ALDATZEKO DEKRETU-
PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO**

Ekainaren 30eko 6/2022 Legeak, Xedapen Orokorak Egiteko Prozedurarenak (6/2022 Legea), xedapen orokorrak egiteko bete beharreko prozedura ezartzen du.

Horregatik, eta aipatutako 6/2022 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egiturari buruzko dekretua aldatzeko prozedurari hasiera ematen dion Agindua eman da. Gainera, onartu nahi den arauarekin lortu nahi diren helburuetarako arauketa egokiena ezartzeko, beharrezkotzat jotzen diren kontsultak, azterlanak eta txostenak egin dira.

Aurreko izapideak egin ondoren, eta horien emaitzak ikusita, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egiturari buruzko dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren hasierako testua idatzi da.

Horiek horrela, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretua aldatzeko dekretu-proiektua aldeztu aurretik onartzea.

Bigarrena. Lehen aipatutako araua egiteko prozedurarekin jarraitzea, eta beharrezkoak diren instrukzio-egintzak egiteko agintzea, hasteko aginduan adierazitako premisekin bat etorritik.

Sinaduraren lekuan eta egunean

NEREA MELGOSA VEGA
ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOKO SAILBURUA



XX/2025 DEKRETUA, XXXXXXXXAREN XX (E) KOA, ONGIZATE, GAZTERIA ETA ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN DEKRETUA ALDATZEN DUENA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 18. artikulua ezartzen duenez, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuordetzaren mendekotasun organikoa eta funtzionala izango du sailburuordetza horri atxikitako zuzendaritza bakoitzak, eta, lurralde historiko bakoitzean, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Lurralde Ordezkaritza bat izango da, zeinaren buru lurralde-ordezkaritza bat izango baita.

Hala ere, hilabete batzuk igaro direnez eta ezin izan denez lurralde-ordezkaritza lanpostuen zuzkidurarik sortu, beharrezkoa da sailaren egitura benetako egoerara egokitzea. Horretarako, aipatutako organoei dagozkien artikulua indargabetzen dira eta eskumenak berriro banatzen dira indarrean dauden organoen artean.

Gainera, 320/2024 Dekretua aplikatuta, eskumen batzuk birbanatu egin behar direla ikusi da, Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritzari eta Hirugarren Sektorea eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritzari dagozkien eremu materialetara gehiago egokitzeko.

Azkenik, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 21. artikuluan xedatutakoa betez, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren laguntza-programak erregulatzen dituzten arauak aldatzen dira, aipatutako 21. artikulua edukira egokitzeko.

Ondorioz, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren proposamenez, lehendakariak onartu ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2005eko XXXaren XX (e) (a) n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua.- Aldatu egiten da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 2. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

"2. artikulua.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura orokorra.

Aurreko artikuluan aipatzen diren eskumenak baliatzeko, Ongizate, Gazteria

eta Erronka Demografikoaren Saila honako organo hauetan egituratzen da:

A) Organo nagusiak:

1.- Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua.

1.1.- Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritza.

1.2.- Zerbitzu Zuzendaritza.

1.3. Aniztasun, Bizikidetza eta Belaunaldi arteko Elkartasun Zuzendaritza.

2.- Ongizate Sailburuordetza

2.1.- Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritza.

2.2.- Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritza.

2.3.- Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoa.

3.- Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburuordetza.

3.1.- Haur, Nerabe eta Familia Zuzendaritza.

3.2.- Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritza.

3.3.- Etorkinen Harrera eta Integratziorako Zuzendaritza.

B) Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailari atxikita edo lotuta daude, beren sortze-arauetan ezarritakoaren arabera, kide anitzeko organo hauek:

- Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bidez sortua eta martxoaren 30eko 101/2010 Dekretuaren arabera arautua.

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bidez sortua eta ekainaren 13ko 124/2006 Dekretuaren arabera arautua.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nazioarteko Adopzioarako Batzorde Teknikoa, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legean aurreikusia eta abenduaren 27ko 277/2011 Dekretuaren bidez arautua.

- Haur eta Nerabeentzako Erakunde arteko eta Sektore arteko Organoa, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen bidez sortua.

- Haur eta Nerabeentzako Euskal Kontseilua, Haur eta Nerabeei buruzko otsailaren 15eko 2/2024 Legean aurreikusia.

- Haur eta Nerabeen Foroa, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen bidez sortua.

- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko

17/1998 Legearen bidez sortua eta otsailaren 18ko 30/2003 Dekretuaren arabera arautua.

- Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseilua, azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuaren arabera arautua.

- Familiaren Euskal Kontseilua, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen bidez sortua eta apirilaren 17ko 53/2012 Dekretuaren arabera arautua.

- Familia Bitartekaritzako Aholku Batzordea, Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legearen bidez sortua eta apirilaren 21eko 84/2009 Dekretuaren arabera arautua.

- Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa, maiatzaren 9ko 67/2023 Dekretuaren bidez sortua.

- Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaia, abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuan arautua.

- Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren bidez sortua.

- Arreta Goiztiarreko Erakundearteko Batzorde Teknikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuaren bidez sortua.

- EAEko Gazteriaren arloko Erakundearteko Koordinazio Organoa, Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen bidez sortua.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Gazteriaren Sailarteko Batzordea, Gazteriaren martxoaren 10eko 2/2022 Legearen bidez sortua.

- EAEko Erlijioen arteko Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-
lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzko ekainaren 29ko 8/2023
Legearen bidez sortua.

Bigarren artikulua.- Aldatu egiten da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 5.f) artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

f) Saileko sailburuordetzako zuzendariek emandako ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioak ebaztea, salbu eta ebazpena ematea sailburuari badagokio.

Hirugarren artikulua.- Aldatu egiten da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 6.h) artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

h) Bere jardun-arloari buruzko informazioa ematea, eskabideak jasotzea eta laguntzak kudeatzea.

Laugarren artikulua.- Aldatu egiten da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 11. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

"11. artikulua.- Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritza.

Dekretu honek, oro har, esleitzen dizkion egitekoen gain, honako hauek dagozkio Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritzari:

a) Gizarte-zerbitzuen arloko analisiak eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea erregelamendu bidez garatzeko araudi-proposamenak egitea, baita gizarte-zerbitzuei buruzko araudi orokorra.

b) Gizarte-zerbitzuen arloko prestazioak eta zerbitzuak kudeatzea, abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako baldintzetan, eta, bereziki, honako hauek: genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako informazio- eta arreta-zerbitzua; emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta ematen dieten profesionalentzako aholkularitzaren eta arretaren kudeaketa integratua; genero-indarkeriaren biktimentzako ordainketa bakarreko laguntza ekonomikoen kudeaketa, ebazpena eta ordainketa, salbu eta laguntza horiei aplikatu beharreko araudiak eginkizun horietakoren bat beste organo bati esleitzen badio; telelaguntza-zerbitzua; familia-bitartekaritzako zerbitzu integrala; Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 19. artikuluaaren esparruan aurreikusitako orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzu telefoniko edo telematikoa.

c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa garatzea.

d) Gizarte Zerbitzuen Erregistro Orokorra eta Bitartekarien Erregistroa kudeatzea eta mantentzea.

e) Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen plangintza eta ebaluazio orokorra egitea, abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako baldintzetan.

f) Zeharkako politikak garatzen laguntzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ongizatearen eremuko jarduerak garatzen laguntzea ere.

g) Gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza eta kualifikazioa sustatzea, abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritako baldintzetan.

h) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eta trantsizio sozial eta demografikoari laguntzeko politikak egokitzera bideratutako gizarte-berrikuntza bultzatzea, eta gizarte-zerbitzuen eta -politiken eremuan gizarte-berrikuntzako euskal ekosistema bat hedatzea, gizarte-erronkei erantzuteko, administrazioen arteko eta gizarte zibileko eragileen arteko lankidetzatik abiatuta.

i) Organo hauei babesa eta laguntza ematea: Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua; Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoa; Familia Bitartekaritzako Aholku Kontseilua; Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua, osasun-arloan eskumena duen sailarekin koordinatuta.

j) Fundazioak gobernatzeko, ordezkatzeko eta administratzeko, baldin eta fundazio horien patronatuko kide Eusko Jaurlaritza bada, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailaren bitartez.

k) Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren funtzionamendua zuzentzea eta antolatzea.

l) Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoak kudeatzea.

m) Sexu-indarkeriaren biktimentzako laguntza ekonomikoak kudeatzea, ebaztea eta ordaintzea, salbu eta laguntza horiei aplikatu beharreko araudiak eginkizun horietakoren bat beste organo bati esleitzen badio.

n) Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko eskumenak baliatzea, Inklusiorako eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 136. artikuluan eta lehen aipatutako laguntzei aplikatu beharreko gainerako lege- eta erregelamendu-xedapenetan xedatutakoaren esparruan.

ñ) Euskal Autonomia Erkidegoan «gizarte-bonu termikoa» kudeatzea, ebaztea eta ordaintzea, salbu eta laguntza horiei aplikatu beharreko araudiak eginkizun horietakoren bat beste organo bati esleitzen badio.

o) Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duen martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailari esleitzen zaizkion egitekoak betetzea.

p) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemako zentro eta zerbitzuetako profesionalak salbuespenez gaitzeko kasuak egiaztatzen dituzten banakako ziurtagiriak ematea, lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko.

q) Familia zaintzaileei eta adinekoei laguntzeko tresna estrategikoak bultzatzea, bai eta bizitegi-bazterketa larria saihesteko neurriak ezartzea eta garatzea helburu dutenak eta desgaitasunen bat duten pertsonen bizimodu independentearen eredia eta bizi-kalitatea bultzatzea helburu dutenak ere. "

Bosgarren artikulua.- Aldatu egiten da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 12. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

"12. artikulua.- Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritza.

Dekretu honek, oro har, esleitzen dizkion egitekoez gain, honako hauek dagozkio Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko Zuzendaritzari:

a) Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia ebaluatzea, eguneratzea eta hedatzea.

b) Hirugarren Sektore Soziala eta lankidetzak publiko-soziala indartzea.

c) Euskadiko Elkarrikerak Zibilerako Mahaia babestea eta laguntzea.

d) Boluntariotzaren Euskal Kontseiluari babesa eta laguntza ematea.

e) Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren funtzionamendua zuzentzea eta antolatzea.

f) Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena sustatzea, eta laguntzak kudeatzea. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartuta ez dauden prestazio eta zerbitzuak garatzeko eta jarduerak egiteko, gainerako zuzendaritzekin koordinatuta.

g) Ekintza Komunitarioa bultzatzeko sare bat diseinatzea, abian jartzea, komunikatzea, sustatzea, koordinatzea eta dinamizatzea.

h) 2025-2028 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategia ebaluatzea, eguneratzea eta hedatzea.

i) Ekintza boluntarioa eta boluntariotzako erakundeak eta agentziak bultzatzea.

j) Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errolda eta Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorra kudeatzea eta mantentzea.

k) Gizarte-zerbitzuetako irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-intereseko deklaratzeari buruzko prozeduren instrukzioa eta ebazpen-proposamena egitea.

Seigarren artikulua.- Indargabetu egiten da Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 320/2024 Dekretuaren 18. artikulua.

Zazpigarren artikulua.- Indargabetu egiten da azken xedapenetako lehenengoaren 2. apartatua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA .- Aldatu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroa arautzen duen Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 16ko 155/2017 Dekretuaren 33. artikuluen 1. eta 6. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1. – Izatezko bikoteen arloko zuzendari eskudunak ebatziko ditu eskabideak, izatezko bikotea eratze edo ezerezteko deklarazioaren inskripzioa egiteko edo ukatzeko, edo bikotearen ekonomia- eta ondare-araubidea arautzen duten itunak egiteko, edo, eskaerari uko eginez gero, eskabidea artxibatzeko .»

«6. – Ebazpenen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio hierarkian izatezko bikoteen arloan eskumena duen zuzendariaren gainetik dagoen organoari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera .»

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA .- Aldatu egiten dira Seme-alabak dituzten familientzako laguntzen otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuaren 18. artikuluen 1., 2. eta 7. apartatuak eta 21. artikuluen 3., 4., 5. eta 7. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«18. artikulua.

1. Familia-politikaren arloan eskumena duen zuzendaria izango da dekretu honetan araututako laguntzen organo kudeatzailea. Organo kudeatzaileak datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egingo ditu, eta, horien arabera, behin betiko ebazpen-proposamena onartuko du.

2. Familia-politikaren arloan eskumena duen sailburuordearen banakako ebazpenaren bidez emango edo ukatuko dira eskatutako laguntzak, behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren .»

«7.- Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio familia-politikaren arloan eskumena duen sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz .»

21. artikulua:

«3. – Baldin eta, edozein unetan, laguntza eman ondoren eta onartutako laguntza osorik ordaindu arte, onuradunak laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak betetzeari uzten badio, berehala jakinarazi beharko dio organo emaileari, ez-betetzea gertatu zen hilaren lehen egunetik laguntza kobratzeko eskubidea galdu duela adierazten duen ebazpena eman dezan.

4. – Laguntza eman ondoren, eta hura osorik ordaindu arte, organo emaileak zalantzak badiu onuradun batek laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak betetzen ote dituen, ordainketak kautelaz eteteko ebazpena emango du, arrazoiak azalduz eta alegazio-aldi bat emanez baldintzak benetan betetzen direla egiaztatzeko.

Informazio guztia bildu ondoren, organo emaileak ebazpena emango du, non:

a) Ez bada egiaztatu laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak betetzen direla, ez-betetzea gertatu zen hilaren lehen egunetik aurrera laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu da.

b) Laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu bada, ordainketei berrekingo zaie, eta etendura gertatu zenetik atzeratutako hilekoak ordainduko dira.

5. – Ebazpen judizial bidez ezarritako zaintza eta jagoletza partekatuko kasuetan, organo emaileak inguruabar horren berri izan ondoren, 13. artikuluan aipatzen den berariazko akordioa aurkezten ez bada, ordainketa eteteko ebazpena emango du, zaintza eta jagoletza partekatua erabaki zuen ebazpen judiziala eman zen hilaren lehen egunetik aurrerako ondorioekin, eta 10 egun balioduneko epean berariazko akordioa aurkeztu beharko du:

a) Epea igaro eta dokumenturik aurkeztu ez bada, ebazpen bat emango du, ebazpen judiziala eman zen hilaren lehen egunetik aurrera laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adierazteko eta ordaintzeke dauden hileko ordainketak baliogabetzeko.

b) Esanbidezko akordioa aurkezten bada, ordainketei berrekingo zaie eta etendura gertatu zen unetik atzeratutako hilekoak ordainduko dira .»

«7. – Laguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14. eta 42. artikuluetan aurreikusitako betebeharren bat betetzen ez badu, laguntzak ematen dituen organoaren titularrak, onuradunari entzun eta dagokion prozedura gauzatu ondoren, emandako laguntza ordaintzeko eskubidea galdu duela deklaratu du .»

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA. – Aldatu egiten dira Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko urriaren 22ko 164/2019 Dekretuaren 59. artikuluen 1., 2., 3. eta 5. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1. – Dekretu honen II., III. eta V. kapituluetan araututako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna familia-politikaren arloan eskumena duen zuzendaria izango da.

2. – Dekretu honen IV. kapituluaren araututako laguntza kudeatzeko organo eskuduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan kontratazioa sustatzeko eskumena duen zuzendaritza izango da.

3. – Dekretu honen II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako laguntzak emateko eta, hala badagokio, ukatzeko, familia-politikaren arloan eskumena duen sailburuordeak berariazko ebazpen individualizatua emango du. IV. kapituluaren aurreikusitako laguntzen kasuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren ebazpenaren bidez egingo da .»

«5. – Dekretu honen II., III. eta V. kapituluetan aurreikusitako laguntzen kasuan, laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio familia-politikaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluekin bat etorriz.

IV. kapituluari aurreikusitako laguntzen kasuan, laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenetan adieraziko da zer errekurtsu jar daitekeen haien aurka, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuaren aurreikusitakoaren arabera .»

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA. – Aldatu egiten dira 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzei buruzko irailaren 7ko 102/2022 Dekretuaren 11. artikuluen 1., 2. eta 5. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1. – Familia-politikaren arloan eskumena duen zuzendaritzako zuzendariari dagozkio dekretu honetan araututako laguntza kudeatzeko zereginak.

2. – Familia-politikaren arloan eskumena duen sailburuordearen banakako ebazpenaren bidez emango edo ukatuko dira eskatutako laguntzak .»

«5.- Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio familia-politikaren arloan eskumena duen sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz .»

AZKEN XEDAPENETAKO BOSGARRENA. – Aldatu egiten dira Gazteen emantzipaziorako Ypa Programarako laguntzak arautzen dituen abenduaren 26ko 191/2023 Dekretuaren 10. eta 16. artikulua, eta honela idatzita geratzen dira:

«10. artikulua

1. – Gazte-politikaren arloan eskumena duen sailburuordearen ebazpen baten bidez emango edo ukatuko dira eskatutako laguntzak.

2. – Ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi beharko da, espedientea osatu eta hurrengo egunetik aurrera, eta administrazio-isiltasuna ezeslea izango da. Hala ere, akatsak zuzentzeko epe bat ireki bada, aipatutako epea etenda geratuko da eskatzaileari bidalitako jakinarazpena jasotzen denetik eskatutako dokumentazio guztia aurkezten den arte.

3. – Ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek gazteriaren arloko sail eskuduneko titularrari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera .»

«16. artikulua.

Gazteriaren arloko zuzendaritza eskudunak dekretu honen helburuak betetzen direla bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen- eta kontrol-ekintzak egin ahal izango ditu. Era berean, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, laguntzak fiskalizatzeko dituzten eginkizunak betetz, interesekoa den informazio guztia eskatu ahal izango diote onuradunari, eta laguntzaren kudeaketari buruz dagozkion egiaztapen-jarduketak egin ahal izango dituzte. Laguntza eman ondoren, eta laguntza osorik ordaindu arte, organo emaileak zantzuaren arabera ikusten badu onuradun batek ez dituela betetzen laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak, ordainketak kautelaz eteteko ebazpena emango du, arrazoiak azalduz eta alegazio-aldi bat emanaz baldintzak benetan betetzen direla egiaztatzeko. Informazio guztia bildu ondoren, dirulaguntza eman duen organoak ebazpena emango du. Ebazpen horretan, a) Laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu ezean, ez-betetzea gertatu zen hilaren lehen egunetik aurrera laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratu da, eta, hala badagokio, ordaindutako laguntzak eta dirulaguntzaren izaera dela-eta sortutako interesak itzuli behar direla, ez-betetzearen zantzuak igorri diren hilabetetik aurrera. b) Laguntza eskuratzeko eta baliatzeko baldintzak betetzen direla egiaztatu bada, ordainketei berrekingo zaie, eta atzeratutako hilekoak ordainduko dira etetea gertatu zen unetik aurrera .»

AZKEN XEDAPENETAKO SEIGARRENA .- Aldatu egiten dira Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa arautzen duen irailaren 12ko 132/2023 Dekretuaren 10. eta 24. artikulua, eta honela idatzita geratzen dira:

«10. artikulua. – Hautatutako proiektuak kudeatzea eta ebaztea.

1. – Dirulaguntzak emateko prozedura kudeatzea gazteriaren arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio.

2. – Behin betiko ebazpen-proposamena onartu ondoren, gazteriaren arloan eskumena duen sailburuordeak ebazpena emango du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da, jakinarazteko, hargatik eragotzi gabe erakunde interesdunei berariaz eta banaka komunikatzea, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu dakienez gazteriaren arloko sail eskuduneko titularrari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

3. – Aurreko apartatuan aipatutako epea igaro eta erakunde interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, eskubidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako .»

«24. artikulua. – Hautaketa-prozesua kudeatzea eta ebaztea.

Dirulaguntzak emateko prozedura kudeatzea gazteriaren arloan eskumena duen zuzendaritzari dagokio, eta ebazpena ematea, berriz, gazteriaren arloan eskumena duen sailburuordetzari.

1.- Hautaketa aurreko fasea.

Balorazio Batzordearen aurre-hautaketarako proposamena ikusita, organo kudeatzaileak zehaztuko du zein diren aurrez hautatutako pertsonak, ordezekoak eta hautaketa-fasea egiteko aurrez hautatu ez direnak, bai eta fase hori noiz eta non egingo den ere. Zerrenda hori <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> gazte-atarian argitaratuko da.

2. – Hautaketa-fasea.

Hautaketa aurreko fasea amaitu ondoren, Balorazio Batzordeak dagokion txostena egingo du, eta organo kudeatzaileak behin betiko ebazpen-proposamena emango du. Proposamen hori lankidetzaproiektuetan parte hartzeko proposatutako pertsonei jakinaraziko zaie, eta ulertuko da laguntza onartzen dutela 15 eguneko epean laguntzari berariaz uko egiten ez badiote.

Epe hori igaro eta laguntzari uko egin ez bazaio, gazteriaren arloan eskumena duen sailburuordeak ebazpena emango du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz jakinaraziko da, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdiaren ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta ebazpenik argitaratu ez bada, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Ebazpen horrek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke gazteriaren arloko sail eskuduneko titularrari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Hautaketa-ebazpena <https://www.gazteaukera.euskadi.eus> atarian argitaratuko da .»

AZKEN XEDAPENETAKO ZAZPIGARRENA.- Aldatu egiten da apirilaren 16ko 48/2024 Dekretuaren 9. artikulua (48/2024 Dekretua, apirilaren 16koa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren ondorioz hildako biktimen seme-alaba umezurtzentzako laguntza ekonomikoa arautzen duena), eta honela idatzita geratzen da:

«9. artikulua. – Prozedura ebaztea

1. – Gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuordearen banakako ebazpen baten bidez emango edo ukatuko da eskatutako laguntza, eta ebazpen horretan jasoko dira Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan aurreikusitako alderdiak.

2. – Aurkeztutako eskabidea baiesten duen eta, beraz, eskatutako laguntza ematen duen ebazpenak aitortuko du onuradunak eskubidea duela urtero 5. artikulua aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa jasotzeko, 4.1 eta 4.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera aplikatzekoa den denbora-tartean.

3. – Ebazteko eta ebatzitakoa eskatzaileari jakinarazteko gehieneko epea 3 hilabetekoa izango da, eskaera laguntza kudeatzen duen organoari dagokion erregistroan sartzen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta interesdunei berariazko ebazpenik jakinarazi ez bazaie, laguntza emateko eskabidea administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertu ahal izango da, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.

4. – Emandako ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio gizarte-politiken arloan eskumena duen sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoaren arabera .»

AZKEN XEDAPENETAKO ZORTZIGARRENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko xxxaren xx (e) (a) n.
Lehendakaria,

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailburua,